

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

#### Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 15eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

##### NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 69/2016 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Arabako Ehiza Lurralde Kontseilua eguneratzen duena Nekazaritza Sailaren egitura berriaren arabera.

Diputatuen Kontseiluaren 70/2016 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Arabako Arrantza Lurralde Kontseilua eguneratzen duena Nekazaritza Sailaren egitura berriaren arabera.

– **Erabakiak:**

##### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 744/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, Borja Rodriguez Ramajo jauna behin-behineko langile izendatzen duena, aholkularitza bereziko eginkizunetarako.

Diputatuen Kontseiluaren 745/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, izendatzen dituena aldundi honek "Zerga iruzurraren aurkako batzordea"n eta "Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenak eta erkidegoko erakundeen finantzazioa aztertzeke lan taldea"n izango dituen ordezkariak.

##### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 746/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, ebazten duena lurralde historiko honetan genero berdintasunaren arloko ekintzak bultzatzen dituzten eta Arabako kuadriletan gauzatuko diren berdintasun egiturak sortzeko dirulaguntza deialdia, irailaren 6ko 59/2016 Foru Dekretuaren bidez deitua.

Diputatuen Kontseiluaren 747/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile 2016-Enpresak), abenduaren 30eko 746/2015 Erabakiaren bidez deitutako laguntzena, hain zuzen.

Diputatuen Kontseiluaren 748/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile 2016-Autonomoak), abenduaren 30eko 746/2015 Erabakiaren bidez deitutako laguntzena, hain zuzen.

Diputatuen Kontseiluaren 749/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren ebazpena (Araba Berritzaile 2016-Teknologia zentroak, unibertsitateak, fundazioak eta elkarteak), abenduaren 30eko 746/2015 Erabakiaren bidez deitutako laguntzena, hain zuzen.

##### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 750/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena foru aldundi honetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko proiektu eta jardueren 2017ko plana.

Diputatuen Kontseiluaren 751/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena bigarrenez luzatzea aldundi hau 2016ko azaroaren 25etik 2017ko azaroaren 25era elektrizitate materialez hornitzeko kontratua, haren esleipenduna den "Grupo Electra" enpresari.

Diputatuen Kontseiluaren 752/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, "Tresa-96-B SL" enpresari esleitzen diona Arte Garaikideko Euskal Zentroko Iparralde eta Hegoalde erakusketa aretoetako zoladura ordeztzeko lanak. Zenbatekoa: 279.705,61 euro; gauzatzeko epea: 3,5 hilabete.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 753/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, 13/2016 baliogabetze bajaren espedientea eta 184/2016 kreditu transferentziarena onartzen dituen, 9.689,59 eta 87.206,30 euroko zenbatekoen hurrenez hurren, "Kreditu Orokorra" partidara bideratzeko, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 754/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena 186/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 87.206,30 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Nekazaritza eta ingurumen neurriak" izeneko partida, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 755/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen dituen 187/2016 eta 188/2016 kreditu transferentziako espedienteak, guztira 222.000,00 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko hainbat partida sortu berri, EHU eta Tecnalia Research & Innovation Fundazioarekin eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Tecnalia Research & Innovation Fundazioarekin hitzarmen bana sinatzeko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 756/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena 190/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 75.000 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Hitzarmena Sociedad Estatal Caución Agraria erakundearekin" eta "Nekazarien aseguru-erako laguntzak" izeneko partidak, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzietako hainbat gastu diruz laguntzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 757/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, aldatzen duena ekainaren 14ko 379/2016 Erabakiaren, Ángela Figuera Aymerich kalean dagoen lokal baten emakida baldintzak arautzeko hitzarmenaren, eranskina. Lokal horren emakida Gasteizko Udalak gauzatu du aldundi honen alde, hura eguneko zentroko zerbitzuko eta/edo atsedeen zerbitzuko jarduerarako erabiltzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 758/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, aldatzen duena abuztuaren 3ko 506/2016 Erabakiaren, "Almudena Cid" haurrentzako udal eskolan (lehenengo Isabel Romero eskolaurreko ikastetxea) dagoen lokal bat erabiltzeko emakidaren baldintzak arautzeko hitzarmenaren, eranskina. Lokal hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bisita unitate gisa eta haren eskumeneko beste gizarte zerbitzu batzuk emateko erabili nahi da.

Diputatuen Kontseiluaren 759/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena aldundi honi itzultzea "Arabako Lanak SA" sozietate publikoaren akzioak, lurralde historiko honetako toki erakundeei emandakoak.

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 760/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, aldatzen duena Gasteizko Udalarekin izenpetutako hitzarmena, mendekoen arreta soziosanitarioari buruzko prestakuntza programa egiteko.

#### NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 761/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, ebazten duena apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Planaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen deialdia, 2016. urterokoan gordetako kreditua handitzen delarik.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 762/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartu egiten duena "71,54 kilometrotik (A-124ko gurutzagunea) 77,84 kilometrora (A-3228ko gurutzagunera, Bilarren) A-3218 errepidearen trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko Proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egiteko diru esleipeneko urte bakoitzerako diru banaketa.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 763/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena Arabako Foru Aldundiak Arabako Artium Fundazioari egingo dion diru ekarpena handitzea 2016 ekitaldirako.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 764/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, onartzen duena luzatzea "Ortzadar SL-Ondare Babesa SL ABEE, aldi baterako enpresa elkarte 18/1982 Legea" izenekoarekin Arabako parke naturaletan kontrol, zaintza eta arreta emateko dagoen kontratua, 2016ko azaroaren 19tik hurrengo esleipena egin arte.

Diputatuen Kontseiluaren 765/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, hasierako agiria dela-eta egondako entzunaldian eta hura jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioei erantzuten diena eta onartzen duena ES2110018 "Arabako hegoaldeko mendilerroak" KBE kontserbazio bereziko eremuaren eta HBBE hegaztientzako babes bereziko eremuaren jarraibide eta neurrien behin betiko agiria, III. eranskin gisa txertatzeko naturgune babestu horren izendapen agiriari.